

# ARAUDIAK

## 1. MUSIKA-TRESNAK MAILEGATZEARI BURUZKO ARAUDIA. (AJA. VII. TITULUA. BALIABIDE MATERIALAK)

1-TGLUMEK musika-tresnak mailegatzen dizkie tresna batekin hasi eta beraiena erosi arte musika tresna hori erabili nahi duten ikasleei, edo ezinbesteko arrazoiak direla medio, ordezeko bat behar duten ikasleei.

**Lehenengo ikasturtean, instrumentuaren maileguak ez dakar tasa gehigarririk. Bigarren ikasturtetik aurrera, bai.**

2- Musika-tresnak maileguan hartzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

2.1- Mailegu Eskatera-Hitzarmena. Bertan azalduko dira ikaslearen datuak, musika tresna-mota eta irakasle arduradunaren aldeko txostena eta sinadura.

2.2-Mailegu Eskatera-Hitzarmena ikasleak sinatu beharko du, adin nagusikoa bada, edo gurasoek edo tutoreak, adin txikikoa bada.

2.3-Ikasleak irakasle arduradunari emango dio Mailegu Eskatera-Hitzarmena. Irakasle arduradunak eskaera bideratu eta eskatutako tresna emango dio ikasleari, baldin eta Arduradun-Irakasleak, onespena baldin badu eta TGLUMEK une horretan mailegatzeko tresnarik baldin badu.

2.4-Musika-tresna ez da inolaz ere urtebetetik gora mailegatuko.

2.5-Ikaslea une oro saiatuko da mailegatutako musika tresna behar bezala erabiltzen eta, kalteak jasanez gero, haien erantzule izango da.

2.6-Irakasle arduradunak jatorrizko eskaera gordeko du mailegua bukatu arte. Kopia bat entregatuko du TGLUMEko bulegoan, aipatutako mailegua inbentarioan erregistratzeko.

2.7-Musika-tresna kaltetuz, puskatuz edo desdoituz gero, ikasleak konpondu, doitu edo ordezkatu beharko du, Eskolak ez baitu bere gain inolako erantzukizunik hartuko.

2.8-Maileguaren epea amaitzen denean, ikasleak irakasleari entregatu beharko dio musika-tresna egoera onean. Irakasle arduradunak orduan musika tresna itzuli eta jatorrizko Eskatera-Hitzarmena entregatuko du bulegoan, inbentariotik kentzeko.

### AZKEN XEDAPENA

Eskola-kontseiluburuari ahalmena ematen zaio araudi hau aplikatzeko eta garatzeko behar adina arau eman ditzan.

1. Eranskina. Eskabide-dokumentua.

# 1.ERREGISTRATU BEHARREKO ESKABIDEEN DOKUMENTUAK

## MUSIKA-TRESNAREN MAILEGU-KONTRATUAREN ESKAERA 20...-20... IKASTURTEA

### BILDURIK:

Alde batetik, ....., "Tomas Garbizu" Lezoko Udal Musika Eskolako Arduradun-Irakaslea eta, bestetik, "Tomas Garbizu" Lezoko Udalaren Musika Eskolako ikasle hau:

Izen-Abizenak: .....

Helbidea: .....

Telefonoa: .....

### AZALDU DUTE:

Kontratu hau egin eta izenpetu dutela ondorengo tresna hau erabiltzeko:

Tresna: .....

Modelo:

Ikasleak dohainik erabiliko du tresna, ondorengo klausula hauen arabera:

### KLAUSULAK (AJA\*)

- 1.- Ikasleak behar bezala erabili eta zainduko du musika-tresna.
- 2.- Hurrengo ikasturtearen hasieran bueltatu beharko du tresna.
- 3.- Ikasleak konpromisoa hartzen du musika-tresna itzultzeko, laga zitzaion bezala – funtzionamendu eta kontserbazio baldintza beretan– 2. klausulan adierazten den egunean. Hala behar balitz, musika-tresnak tailerrera eramango dira, konpontzera. Gastuak ikaslearen edo haren gurasoen kontura izango dira.
- 4.- Kontratu honek ikasturte bateko balioa izango du, epe hori luzatzeko aukera izango den arren.
- 5.- Ikasleak bere instrumentu propioa eduki beharko du 2. Ikasturtearen hasieran.

*Alde biek, adierazitakoarekin ados egonik, dokumentu hau izenpetu dute,*

*Lezon, 20\_\_(e) ko \_\_ren \_\_\_\_(e) an.*

**ARDURADUN-IRAKASLEA    IRAKASLE TUTOREA    IKASLEA EDO GURASOAK**

**TRESNA HAU MUSIKA ESKOLARI BUELTATU ZAIO DATA  
HONETAN:.....**

**IRAKASLE TUTOREAREN SINADURA:**

**IKASLE EDO GURASOEN SINADURA:**

PROZEDURA: Klaustro- irakasle- ikasle- irakasle (gorde)- kopia bulegoan- ordenadorean gorde (inbentarioa). Tresna Musika Eskolari bueltatu zaionean, kontratu originala Bulegora eramango da, entrega kudeatuz.

[xantiespina@lezo.eus](mailto:xantiespina@lezo.eus)